## ZUMAIAKO UDALA

*Gaia: Zumaian ekitaldi zibilak egiteko udal ordenantzaren behin betiko onarpena.*

Udalbatzak, 2012ko abenduaren 26ko ezohiko bileran, Zumaian ekitaldi zibilak egiteko udal ordenantzari hasierako onespena eman zion.

Ordenantza hori 30 eguneko epean jendaurrean jarri zen, 2013ko urtarrilaren 11ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako 8 zenbakidun iragarkiaren bidez, eta ez denez aurkeztu inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatu araudia behin betiko onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da Ordenantzaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Zumaia, 2013ko urtarrilaren 18a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(451) (1777)

*Zumaian Ekitaldi Zibilak Egiteko Udal Ordenantza.*

### ATARIKOA

Estatu ez-konfesional eta laiko batean, erakundeek pertsonen eta elkarteen askatasun ideologiko eta erlijiosoa eta gurtzarako askatasuna bermatu behar dutela gauza jakina da gizartean, eta horretarako muga bakarra legeak ezartzen duen ordena publikoa errespetatzeko beharra da.

Ekitaldi zibilak (hiletak, ezkontzak edo/eta omenaldiak) egiteko behar soziala erlijiorik gabe bizitzea aukeratu duten herritarrei zeremonia duina eta pertsonala eskaintzeko beharretik sortu da, herritar horiek bizitza ulertzeko duten modua errespetatzeko.

Gure gizartean edo herrian bertan elkarren ondoan bizi diren erlijioek hildakoei agur esateko liturgia-ekitaldiak egiteko edo bestelako ekitaldi zibilak egiteko toki edo tenpluak dituzten bezala, Zumaiako Udalak gizartean gero eta eskaera handiagoa duen behar bati erantzun behar dio.

Ordenantza honen helburua, beraz, Zumaiako gizarte zibila osatzen duten familiek, adiskideek, erakundeek edo taldeek egin nahi dituzten ekitaldi zibilak baimentzeko arauak ematea da, hala, pertsona horien ekarpenak edo balio etikoak edota gizatiarrak onartzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

*Asunto: Aprobación definitiva de la ordenanza municipal para la celebración de actos civiles en Zumaia.*

El Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el día 22 de marzo de 2012, aprobó con carácter inicial la Ordenanza Municipal para la celebración de actos civiles en Zumaia.

Dicha Ordenanza quedó sometida a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 8 de fecha 11 de enero de 2013, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Zumaia, a 18 de enero de 2013.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta.

(451) (1777)

*Ordenanza para la celebración de actos civiles en Zumaia.*

### PREÁMBULO

Como es conocido por la sociedad en su conjunto, en un Estado aconfesional y laico, las instituciones deben garantizar la libertad ideológica, religiosa y de culto de las personas y comunidades sin más limitación que la necesaria, para mantener el orden público de acuerdo con la ley.

La realización de actos civiles (bodas, fallecimientos u homenajes) nace de la necesidad social de ofrecer un acto digno y personal a aquellas ciudadanas y ciudadanos que han escogido vivir sin la religión, de conformidad a cómo la persona concibe la vida.

Así como las distintas religiones que conviven en nuestra sociedad y en nuestro propio pueblo tienen lugares o templos donde realizar sus actos litúrgicos, el Ayuntamiento de Zumaia tiene la obligación de dar respuesta a una necesidad social cada día más demandada.

La presente ordenanza pretende, por tanto, regular la autorización y celebración actos civiles que familiares, amistades, organizaciones y/o entidades que componen la sociedad civil de Zumaia quieran realizar.

1. KAPITULUA

XEDEA

*1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua Zumaiako udalerrian ekitaldi zibilak egiteko udal lokalen edo espazio publikoaren erabilera eta baimena arautzea da.

2. KAPITULUA

BAIMENA

*2. artikulua.*

Alkateak edo hori ordezkatuko duen zinegotziak, ekitaldi zibiletarako gordetako espazioak erabiltzea baimendu ahal izango du, betiere, Zumaiako Udalerrian erroldatutako senitartekoak edo dagokionak Zumaiako Udalean edo Udaltzaingoen bulegoan eskabidea bete ondoren.

3. KAPITULUA

ANTOLAKETA

*3. artikulua.*

Ekitaldi zibilak egiteko eskaerak Zumaiako Udalaren Alkatetzari zuzenduko zaizkio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko arazoen 26ko 30/1992 Legeak baimendutako moduetako edozein erabilita.

*4. artikulua.*

Hileta eta ekitaldi zibilen eskaeren izapideak egoera horrek beharrezkoa duen berehalakotasun printzipioaren arabera arautuko dira, eta horiek ebazteko eskumena duen pertsonari bidaliko zaizkio.

*5. artikulua.*

Egingo diren eskaeretan honako datu hauek adierazi beharko dira:

a) Ekitaldia egiteko baimena eskatzen duen pertsonaren izen abizenak, helbidea eta identifikazioa.

b) Ekitaldia zuzenduta dagien pertsonaren izen-abizenak.

c) Eskaeran ekitaldi zibila zein egunetan eta zein ordutan egin nahi diren adierazi behar da.

d) Oro har, eta herrigunean, ospakizun horiek ondorengo eraikin edo gune publikoetan egingo dira:

— Forondan.

— Konbentuan.

— Udalbatza aretoa

Administrazioak, ahal duen neurrian, eskaeran zehaztutako eguna eta ordua errespetatuko ditu, eta eskaerak egin diren ordena hartuko da kontuan horretarako. Ordena hori aldatu ahal izango da aparteko kasuetan eta horretarako arrazoi nahikoa dagoenean.

Ekitaldi zibilak ez die hirugarrenei kalterik eragingo (ostalaritza, merkatalgoa, haurren jolas lekuak)

e) Eskaera egin den lekua eta data.

CAPÍTULO 1

OBJETO

*Artículo 1.*

La presente ordenanza tiene por objeto regular la autorización y utilización de locales municipales o espacios públicos para la realización de actos civiles en el término municipal de Zumaia.

CAPÍTULO 2

AUTORIZACIÓN

*Artículo 2.*

Podrá autorizar el uso de cualquiera de los espacios reservados para las actos civiles el Alcalde/Alcaldesa o concejal en quien delegue, siempre que la persona o familiar correspondiente, empadronada en el municipio de Zumaia, cumplimente la solicitud que se encuentra disponible en el Ayuntamiento de Zumaia o en las dependencias de la Policía Municipal.

CAPÍTULO 3

ORGANIZACIÓN

*Artículo 3.*

Las solicitudes de realización de actos civiles serán dirigidas a la Alcaldía del Ayuntamiento de Zumaia, en cualquiera de las formas permitidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

*Artículo 4.*

La tramitación de las solicitudes para la realización de actos civiles se regirá por el principio de inmediatez que requieren las circunstancias, siendo remitidas a la persona competente para su resolución.

*Artículo 5.*

Las solicitudes que se formulen deberán contener:

a) Nombre, apellidos, domicilio e identificación de la persona que solicita autorización para la celebración del acto.

b) Nombre y apellidos de la persona o personas a las que va dirigida la acto civil

c) Indicar en la solicitud el día y la hora para la celebración del acto civil.

d) Con carácter general y dentro del término municipal, estas celebraciones se realizarán en algunos de los edificios o espacios públicos siguientes:

— Foronda.

— Convento.

— Salón de Plenos.

La Administración atenderá en la medida de lo posible la preferencia de la solicitud en cuanto a fecha y hora, ateniéndose al orden de presentación de las solicitudes. Dicho orden podrá ser alterado en casos extraordinarios y siempre que se motive tal alteración.

La celebración de la acto civil, no deberá afectar a terceros (hostelería, comercios, zonas de juegos de niños).

e) Lugar y fecha de la solicitud.

f) Eskatzailearen sinadura.

g) Ekitaldiaren deskribapen laburra, eta beharko duten materialarena (megafonia, mahaiak, aulkiak, etab.).

Egun berean eta leku berean bi ekitaldi zibil egiteko eskaera balego, aurkeztutako data kontuan izango da, eta bata bestaren atzetik ospatu beharko da, tartean utzi beharko da lekua egoki prestatzeko behar adina denbora.

Baldin eta Udalak, zerbitzua emateko jarritako ohiko baliabideekin (pertsona eta materialak), ezin badie aurre egin aurkeztutako eskabide guztiei, kontuan hartuko da aipatutako aurkezpenen ordena.

*6. artikulua.*

Eskaerak aurreko artikuluak zehaztutako baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari lehenbailehen eskatuko zaio akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko, ekitaldiaren aurretik edo ondoren.

## 4. KAPITULUA

## PROZEDURAREN INSTRUKZIOA EGITEA

*7. artikulua.*

Ekitaldi zibila egiteko tokia, eguna eta ordua Alkateak edo horren ordezko zinegotziak onartuko du.

Eskaerak lehenetsitako egun eta orduen ordena kontuan izanik zehaztuko dira, ahal den neurrian behintzat, egun eta orduak. Udal lokalen edo leku publikoen erabileraren ondorioz, zenbaitetan ez da eskaeretan eskatutako orduetarako horien erabilera uzterik izango. Nolanahi ere, horretarako erabakia behar bezala arrazoituta egon beharko da eta eskaera egin dutenekin hitz egin beharko da eskatu dutenarekiko egon den aldaketari buruz.

*8. artikulua.*

Eskaera ikusita Alkatetzak edo berak ordezko izendatzen duen zinegotzigoak zein leku edo espazio publikotan egin baimenduko du; oro har, ekitaldi zibila 5. artikuluan finkatutako lekuren batean izango da. Aparteko izaeraz, beste lokal batzuk edo espazio publikoak erabiltzea baimendu ahal izango da.

*9. artikulua.*

Ekitaldi zibilak astelehenetik larunbatera ospatuko dira, horretarako beharrezkoak diren udal baliabideak emanda.

Ekitaldi zibilak egiteko ordutegia, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara izango da astelehenetik ostiralera. Larunbata eta jaiegunetan (igandetan izan ezik) ordutegia, berriz, goizeko 9:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara izango da. Hori guztia, Alkateak ordutegia aldatzeko duen eskumenari utzi gabe, gero horren berri Udalbatzarrari emanda.

*10. artikulua.*

Ekitaldiaren ospakizunak udal langileen laguntza izango du. Udalak eskatzailearen eskura jarriko dituenak: Megafonia, aulkiak, mahaiak.

*11. artikulua.*

Ekitaldi zibilak irauten duen bitartean, Zumaiako Udaltzaingoa izango da ingurunean, ekitaldia arazorik gabe garatuko dela bermatzeko.

f) Firma de la persona solicitante.

g) Breve descripción del acto y material que se vaya a necesitar (megafonía, mesas, sillas, etc.).

En caso de recibir dos solicitudes de celebración del acto civil el mismo día y en el mismo lugar, se tendrá en cuenta la fecha en la que se presentaron y se celebrarán sucesivamente, dejando entre ambas tiempo suficiente para preparar adecuadamente el espacio.

Si el Ayuntamiento, con los medios disponibles habitualmente para la prestación del servicio (personas y materiales), no pudiera hacer frente a todas las solicitudes presentadas, tendrá en cuenta el citado orden de presentación de las mismas.

*Artículo 6.*

Si la solicitud no reúne los requisitos que señala el artículo anterior se requerirá a la persona interesada con la mayor urgencia posible para que con antelación al acto o posteriormente subsane la falta, o acompañe los documentos preceptivos.

## CAPÍTULO 4

## INSTRUCCIÓN DEL PROCEDIMIENTO

*Artículo 7.*

El Alcalde/Alcaldesa o concejal en quien delegue aprobará el lugar, la fecha y la hora de celebración del acto civil.

La fijación de fecha y hora se realizará atendiendo, en la medida de lo posible, al orden de preferencias indicado. Podrá no atenerse al horario indicado en las solicitudes, siempre que se den circunstancias derivadas del uso de los locales municipales y espacios públicos. En todo caso, la resolución deberá estar suficientemente motivada y deberá consultarse a quienes han visto alterada su solicitud.

*Artículo 8.*

A la vista de la solicitud, la Alcaldía o el/la concejal en quien delegue autorizará el local o espacio público en el que haya de celebrarse el acto civil, que con carácter general será uno de los fijados en el artículo 5. Con carácter extraordinario, se podrá autorizar la utilización de otros locales o espacios públicos.

*Artículo 9.*

Los actos civiles se celebrarán de lunes a sábado, habilitando al efecto los recursos municipales necesarios.

El horario para la celebración será de 17:00 a 21:00 horas de lunes a viernes. Los sábados y festivos (excepto domingos) se celebrarán de 9:00 a 14:00 de la mañana y de 17:00 a 21:00 horas de la tarde. Todo ello, sin perjuicio de la competencia que se atribuye a la Alcaldía para modificar el horario, dando cuenta de ello al Pleno.

*Artículo 10.*

La celebración del acto contará con la colaboración del personal municipal. El Ayuntamiento pondrá a disposición de la persona solicitante el equipo de megafonía y los elementos, como mesas y sillas necesarios.

*Artículo 11.*

Durante el transcurso del acto civil, la Policía Municipal de Zumaia permanecerá en las proximidades para garantizar el normal desarrollo del mismo.

## 5. KAPITULUA

## ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

*12. artikulua.*

Udal lokalen zainketa egokia bermatzeko, ekitaldian parte hartuko dutenek ez dute lokaletan kalterik edo galerarik eragin dezakeen inolako ekintzarik egingo. Ekitaldia egiterakoan udal ondasunetan sor daitezkeen kalte-galeren erantzulea baimenaren titularra izango da.

*13. artikulua.*

Ekitaldiaren antolatzaileek udal lokala apaindu nahi badute modu bereziren batean egokitu nahi badute, aurrez eta nahiko denboraz horren berri eman behar diote udaltzaingoei; hala ere, lekuaren harmonia eta ezaugarriak errespetatu beharko dituzte beti, eta sor daitezkeen gastuak beren gain hartu beharko dituzte. Ekitaldia egiteko zerbitzu osagarriak interesdunaren kontura eta kargura izango dira, baina, betiere, Zumaiako Udalak ikuskatu ahal izango ditu.

*14. artikulua.*

Salbuespen gisa ekitaldi zibila egiteko 5. Artikuluan aurreikusi gabeko espazio publikoren bat erabiltzea baimenduko balitz, Udalak espazio mugatu ahal izango du lehen aipatutako eskubide eta betebeharrekin.

*15. artikulua.*

Ordenantza honetan aurreikusten ez den edozein alderdietarako, udal aginduak hartuko dira kontuan.

*16. artikulua.*

Ekitaldi zibilaren kostua dagokion Ordenantza fiskaletan jasota dago, ordainketa eskatzaileak ekitaldia ospatu aurretik ordaindu beharko du.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau berorren behin betiko onarpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da

## CAPÍTULO 5

## DERECHOS Y OBLIGACIONES

*Artículo 12.*

A fin de garantizar la buena conservación, los asistentes al acto se abstendrán de realizar cualquier acto que pueda suponer deterioro o menoscabo de los locales municipales. La persona titular de la autorización será responsable de los daños y perjuicios que se causen a los bienes municipales con motivo de la celebración del acto.

*Artículo 13.*

Cuando los organizadores de los actos civiles deseen ornamentar el local municipal o acondicionarlo de forma especial, deberán hacerlo saber a la Policía Municipal con la antelación suficiente, respetando siempre la armonía y características del lugar y siendo a su cargo los gastos que con este motivo se produzcan. Los servicios complementarios para la celebración del acto, los aportará la persona interesada e irán a su cargo sin perjuicio de la supervisión de los mismos por parte del Ayuntamiento de Zumaia.

*Artículo 14.*

En caso de que con carácter extraordinario se autorizara la utilización de espacio público no contemplado en el artículo 5 para la realización de actos civiles, el Ayuntamiento podrá acotar el espacio público con los derechos y obligaciones anteriormente citados.

*Artículo 15.*

En todo lo no previsto en esta ordenanza, se deberán seguir las instrucciones municipales.

*Artículo 16.*

El coste del acto civil, está recogida en la Ordenanza Fiscal correspondiente y su abono, será realizado por la persona solicitante de la autorización, antes de la celebración del acto.

## DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de la publicación de su aprobación definitiva en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.